



www.begiko.com

© Testua: 2018, ANTTON KAZABON

© Irudiak: 2018, AITZIBER ALONSO

© Argitalpen hau:

2018, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-43-8

Lege-gordailua: M-19625-2017

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2018ko urtarrila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhua Basterretxea eta Yolanda Caja

Zuzenketa:

Ane Barrenengoa eta Amaia Lasheras

Errealizazioa:

Miren Pellejero

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega eta Álvaro Recuenco

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea, haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Martintxo Bigarrena

Antton Kazabon

Irudiak: Aitziber Alonso

begiko

Oso gustura egoten naiz aitonarekin, geroz 9
eta atseginagoak dira elkarrekin igarotzen di-
tugun denbora tarte luzeak. Asko daki eta be-
ti badu zerbait interesgarria niri kontatzeko.

Aitonak poztan nau triste antzean na-
goenean. Beti umore onez dago, eta aurpe-
gian ezpainenetik begietarainoko irribarrea
dauka ia beti.

Arazoren bat dudanean, munduko ahol-
kurik onenak ematen dizkit aitonak. Eta ia
beti zaizkit baliagarriak haren esanak.

Beldurak sumatzen nauenean ere, aito-
nak uxatzen dizkit izu eta kezka guztiak,
eta libre sentiarazten nau berriro.



Jakintsua da aitona. Zerbait jakin nahi dudanean, nik aitonari galdetzen diot, eta beti dauka erantzun zuzena eta egokia.

Aitonarekin egon nahi dudanean, badakit nora jo. Etxean ez badago, gure etxe aurreko txaran izaten da normalean. Bizikletan ibili ondoren, hantxe egoten da parkeko eserlekuren batean atsedena hartzen.

11

—Arratsalde on, aitona! Gaur ere kirola eginda?

—Baita zuri ere, Martintxo. Bai, halaxe da. Gaur ere egin dut eguneroko bueltatxoa, eta hementxe nengoen zu noiz etorriko. Zer moduz ikastolan?

—Ongi.

—Ongi? Besterik gabe?

—Bai, beno, badakizu, nirekin sartzen dira beti gelako matoienak. Gelako ttikiena ere neu naiz eta...



—Lasai, Martintxo. Horiei ezta kasurik ere. Beno, bai, kasu egin, baina ez txarrerako, onerako baizik. Zuk ez galdu irribarrerik, eta ez kikildu. Burua altxa, eta aurrera. Eta tarteka, laguntzarik behar duten galdetu. Ikusiko duzu nola utziko dituzun zer egin ez dakitela.

—Baina hori ez da erraza, aitona.

13

—Nik ez dut erraza denik esan, baina zu saiatu horrela jokatzten. Gainera, horiek gauza txikiak dira, Martintxo, garrantzi gutxiko kontuak.

—Garrantzi gutxiko kontuak? Joee! Zuretzat izango dira!

—Begira, ikusten al duzu han goi-goian hegazti hura zeinen ederki dabilen, lasai-lasai, kasik hegalak mugitu ere egin gabe? Ba al dakizu zer hegazti den?

—Hura? Ez dakit, ba. Usoa?

—Baita zera ere, Martintxo! Distantzia horretara usoa ez genuke ikusi ere egingo.

Usoa baino askoz ere handiagoa. Arranoa da, arranoa. Arrano beltza. Marroi iluna da, baina arrano beltza deitzen zaio.

—Zenbatekoa da, ba?

14 —Hegoak zabaldua, bi metro izango ditu punta batetik bestera. Mokoa beldurgarri gogorra, eta hanketan eta atzaparretan indar ikaragarria. Hegazti ttikiagoak eta untxiak ere airean eramaten ditu zintzilik, hanka bakarrarekin estu-estu hartuta.

—Untxiak azkarrak dira, ba, oso. Nola harrapatzen ditu?

—Untxiak azkarrak? Arrano beltza azkarragoa. Orduko 250 kilometro egin ditzake. Pentsa!

—Orduko 250 kilometro? Exageratzen ariko zara, aitona.

—Exageratzen? Ezta batere, Martintxo. Nire hegazti faboritoak dira arranoak. Zuhaitz edo posteren baten puntan geldirik

daudenean, ikusgarriak dira. Eta altxata hegan hastean, ikusgarriagoak. Ni gustura egoten naiz horiei begira. Eta lurreko harrapakinen baten atzetik goitik beherako hegaldia egiten dutenean? Izugarria! A ze ziztua!

—Ederki, aitona, emozionatzen ari zara, 15
baina ez ginen horretaz ari. Ikastolako kontuez ari ginen. Zertara dator orain arrano beltzaren historia hau dena?

—Zuk ere arrano beltza izan behar duzula, Martintxo, arrano beltza, zuk ere!

—Ez dut ulertzen. Nik ez dakit hegan, eta korrika eginda ere, ez dut orduko 250 kilometroko abiadurarik hartzen.

—Ezta beharrik ere, Martintxo. Esan dizut eskolako burla-kontu horiek txorakeriak direla, ttikikeriak. Zuk horien gainetik egin behar duzula hegan, lasai, kontu horiei kasurik egin gabe. Mixeria horietan zikindu

gabe. Arranoak egiten duen bezala, gainetik pasa, munduaren gainetik paseatu. Beharrezkoa denean bakarrik jaitsi lurrera.

—Baina ez al da, ba, arrano hori jaisten ari oraintxe bertan? Beti ez dabil mundutik urrutira hegan guztion gainetik paseatzen.

16 —Esan dizut, ba. Noski jaisten dela. Gosea duenean, janari bila. Ugalketa garaian habia egitera, arrautzak errutera eta kumeak zaintzera...

—Beno, aitona, banoa berandutu baino lehen. Saskibaloiko entrenamendua daukat.

—Zer moduz? Saskiratze asko egiten al dituzu?

—Saskiratze asko? Keba! Gainera, ez zait batere gustatzen. Baina halere jarraitu egin beharko. Badakizu aita nolakoa den.